

Ezkio-Itsaso. Igartubeiti Museoa “Artisau kandlei buruzkoarekin amaituko dira hilabete honetako tailer didaktikoak Igartubeitin”

Orain dela hilabete pare bat hasi ziren Igartubeitikoak tailer didaktiko desberdinak antolatzen museoan. Ugari egon dira bertan dagoeneko eta hilabete honetako azkena larunbatean egingo da, Aikurren eskutik egongo den artisau kandela tailerrarekin.

Aurreko astean herri kiroleninguruko tailerra aurrera eraman zen eta honetan bost gaztetxok hartu zuten parte giro ezin hobean jolasean ibili zirelarik.

Hurrengo, eta esan bezala hilabete honetako azkena, larunbatean ospatuko da, arratsaldeko laueta hasita. Aikurren eskutik dator museora tailer hau eta honetan, besteetan bezala, bai gaztetxoek baita gurasoek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Bi orduko iraupena izango du ikastaroak, 18:00etan dena jasotzen hasiko direlarik. Baina orduan ez da amaituko ekintza. Hilabeteko azken larunbata denez, arratsaldeko 19:00ak arte Igartu merienda gozoaz gozatzeko aukera izango dute bertara joaten diren guztiek.

Horrela, parte hartu nahi duten familiek aldez aurretik izena eman beharko dute, bai Igartubeiti baserri museoan, interpretazio zentruan, baita 943 72 29 78 telefonoan; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo museoko web orrian.

Arratsalde ezin hobea izango da larunbatekoa, ekintza erakargarri batekin eta ondo amaitzeko ospatuko den meriendarekin.

M. GALILEA